Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

# EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2018IPLE0001
**Eguna:** 2018-01-09
**Ordua:** 13:30 – 14:55
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martinez | Ehbildu |
| - Mª Teresa Bernal Monroy | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | Ehbildu |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

**Bertaratu ez direnak**

**Bertaratutako udal teknikariak**

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría, ordezko udal idazkaria

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2017ko azaroaren 29ko akta onartzea.** | 1. | Aprobación del acta de 29 de noviembre de 2017. |
| **2018ko udal aurrekontua: hasierako onarpena.** | 2. | Presupuesto municipal del 2018: aprobación inicial |
| **Britac Proyectos SL enpresak 09 HIEko G.1/1 partzelan egingo duen obra (kultur etxe berria eraikitzea) interes berezikoa edo udal onurakoa izendatzea.** | 3. | Declarar de especial interes o utilidad municipal la obra que la empresa Britac Proyectos SL va a ejecutar en la parcela G.1/1 AIU9 (construcción de la nueva casa de cultura) |
| **Informazio, galdera eta eskariak** | 4. | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1.-2017ko azaroak 29ko akta onartzea.**

Akta aho batez onartu da.

**1.- Aprobación del acta de 29 de noviembre de 2017.**

El acta se ha aprobado por unanimidad.

**2.- 2018ko udal aurrekontua: hasierako onarpena.**

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-*** *PSE-EE talde politikoak eginiko 7 emendakinak, eta 4652 sarrera zenbakia duena, onartzea, "Ibai Parkea" izeneko emendakina aldatuaz, aurrekontuan gutxitu beharreko kopurua 100.000,00 eurokoa izanez, eta "Arrobitxulo. Irisgarritasuna" izeneneko emendakina aldatuz, aurrekontuan gutxitu beharreko kopurua 140.160,00 eurokoa izanez.*

***Bigarrena.-*** *EAJ-PNV talde politikoak eginiko 10 emendakinak, eta 4691 sarrera zenbakia duena, onartzea, "Udalbiltza" izeneko emendakina aldatuaz, aurrekontuan gehitu beharreko kopurua 20.000,00 eurokoa izanez, eta "Arrobitxulo. Irisgarritasuna" izeneneko emendakina aldatuz, aurrekontuan gutxitu beharreko kopurua 140.160,00 eurokoa izanez.*

***Hirugarrena.-*** *EHBILDU talde politikoak egindako 26 emendakinak, 4692 sarrera zenbakia, gutxieztea.*

***Laugarrena.-*** *Arestian aipatu diren onetsitako emendakinak 2018ko aurrekontura sartuaz, 2018ko Aurrekontu Orokor kontsolidatuari eta osatzen duten dokumentuei hasierako onarpena ematea.*

***Bosgarrena.-*** *21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2018ko Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzeko espedientea jendaurrean jartzea 15 egun*

**2.-Presupuesto municipal del 2018: aprobación inicial**.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

***Primero.-*** *Estimar las 7 enmiendas formuladas por el grupo político PSE-EE (número de entrada 4652), modificando, la enmienda relativa a "Ibai Parkea" siendo la cantidad a disminuir en el presupuesto de 100.000,00 € y la enmienda relativa a "Arrobitxulo. Irisgarritasuna" siendo la cantidad a disminuir en el presupuesto de 140.160,00 €.*

***Segundo.-*** *Estimar las 10 enmiendas formuladas por el grupo político EAJ-PNV (número de entrada 4691), modificando, la enmienda relativa a "Udalbiltza" siendo la cantidad a aumentar en el presupuesto de 20.000,00 € y la enmienda relativa a "Arrobitxulo. Irisgarritasuna" siendo la cantidad a disminuir en el presupuesto de 140.160,00 €.*

***Tercero.-*** *Desestimar las 26 enmiendas formuladas por el grupo político EHBILDU (número de entrada 4692).*

***Cuarto.-*** *Con las enmiendas estimadas que se incorporan al presupuesto 2018, proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General consolidado 2018 y los documentos que lo integran.*

***Quinto.-*** *Conforme a lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 21/2003, someter el expediente de aprobación inicial del Presupuesto General 2018 a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que en caso de no formularse alegaciones se entenderá*

*baliodunetan, eta, alegaziorik izan ezean, behin betiko onartutzat jotzea, erabakirik eman beharrik gabe.*

***Seigarrena.-*** *Hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak ez zuela eskatu luzapena emendakinak aurkezteko, baizik eta bermatu nahi zutela horiek aurkeztu ahal izatea, idazkariak eta kontu-hartzaileak egindako txostenean argi gelditu baita aurrekontua hasieraz onartu ondoren ezin direla aurkeztu. Bestalde, adierazi du aurten ere parte-hartze ordenantza bete gabe ekarri dela aurrekontuaren onarpena osoko bilkurara.

Jarraian zinegotziak bere taldeak aurkeztu dituen emendakinen inguruko balorazioa egin du. Adierazi du aurkeztutako emendakin bakar bat ere ez dela onartu eta hori 27 aurkeztu zituztela: ikastolaren handipena gauzatzeko; parte-hartzeko ordenantza betetzeko, hots, herritarrek inbertsioetako zati bat zertan erabili erabakitzeko; hondakinen bilketa ingurukoa; mapa morea gauzatzeko, Harituz taldeari laguntza izenduna emateko; garapen sozio-ekonomikoaren ingurukoa; parrokiaren dirulaguntza izenduna; uholdeen aurkako neurriak hartzeko; Emakumeon plaza hiritartzeko lanen ingurukoa; herri-bideen ingurukoa; auzoetarako hainbat hiritartze-lanak egiteko: Ergobiako estalkia, Anuskako hiritartzea, Santiagomendiko auzoko hiritartzea eta lokala…

Horien nondik norakoak azaldu ondoren, kezkagarritzat jo du haur eskolaren emendakina ez onartu izana. Adierazi du kezkagarria iruditzen zaiela haur eskolaren lokalaren errendamendu-kontratua apirilaren 1ean bukatzea, eta konponbiderik gabe egotea. Azaldu du aurrekontuan ez dela jaso lokala erosteko zenbatekoa, ezta ez erosteagatik ordaindu beharreko kale-ordaina; eta gainera, larriagoa izan daitekeela udalak erosi ezean, jabeek lokala saldu

*aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

***Sexto.-*** *Remitir el acuerdo de aprobación inicial al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.*

El concejal Andoni toma la palabra y señala que su grupo no ha solicitado una prórroga para la presentación de enmiendas, sino que querían garantizar la posibilidad de presentarlas, puesto que como se señala en el informe de la secretaria y la interventora tras la aprobación inicial del presupuesto ello no es posible. Por otra parte señala que también este año se ha traído al pleno la aprobación del presupuesto sin cumplir la ordenanza de participación.

A continuación el concejal realiza una valoración de las enmiendas presentadas por su grupo. Señala que no ha sido aprobada ninguna de las enmiendas que han presentado, y eso que han presentado 27: ejecutar la ampliación de la ikastola; cumplimiento de la ordenanza de participación, o sea, que la ciudadanía pueda decidir a qué destinar parte de las inversiones; recogida de residuos; diseño del mapa morado, subvención nominativa a la asociación Harituz; desarrollo socioeconómico; subvención nominativa de la parroquia; adopción de medidas contra las inundaciones; obras de urbanización de Emakumeon plaza; caminos vecinales; y la realización de diferentes obras de urbanización en los barrios: cubierta de Ergobia, urbanización de Anuska; local y urbanización del barrio de Santiagomendi…

Tras explicar los pormenores de cada una, muestra su preocupación por el hecho de que no haya sido aprobada la enmienda relativa a la escuela infantil. Señala que les parece preocupante que el contrato de arrendamiento del local finalice el 1 de abril y no se haya propuesto ninguna solución al respecto. Señala que el presupuesto no refleja el montante de la adquisición del local, ni tampoco la indemnización por no adquirirlo; y que además, el asunto puede agravarse, sus propietarios podrían decidir venderlo si el ayuntamiento no lo compra, lo

dezaketelako, eta horrek kolokan jarriko duelako haur eskola. Gaineratu du bere taldea egoera zuzentzan saiatu dela emendakina aurkezten, kreditu txertaketako zenbatekoa ezin baita erabili, beranduegi izango baita.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak aurkeztu dituen 7 emendakinak onartu direla, eta berak alde bozkatuko duela.

Alkateak hitza hartu eta EHBilduren emendakinak ez onartzearen inguruko gogoeta egin du, adierazi du beste urteetan horiek aztertu eta txertatzeko egindako lanaren ondoren, prentsan adierazi dela gobernu taldeak ez duela programarik, ez ardatzik, eta EHBilduri esker ateratzen zirela gauzak, eta frogatu dutela hori ez dela horrela. Gaineratu du: batetik, hainbat proiektu ez direla jaso kreditu txertaketarekin gauzatu daitezkeelako, eta nahiago izan dutelako berriak sartu; eta bestetik, hezkuntzarekin konpromisoa dutela, baina haur eskolaren kontratuak ez duela aurreikusten luzapenik, eta bere taldeak jakingo duela horren arrazoia. Azken horren harira adierazi du, gainera, martxan dutela konponbidea eta hurrengo udal osoko bilkuran emango dutela horren berri.

Jarraian EHBildu taldeak aurkeztutako emendakinaren zergatik ez diren onartu azaldu du: jangela berriarentzat eskaerarik ez egotea; hondakinen bilketa egokiagoa ikusten dutelako obra eta zerbitzuetatik kudeatzea, eta kontzentziazio kanpainak, berriz, ingurugirotik; berdintasun arlokoak beranduago aztertuko direlako, teknikari bat hartzeko asmoa dagoenez, berak aztertuko dituelako; parrokiaren laguntza bermatuta dagoelako; Astikoren laguntza kontratatuko den langile berriarekin bermatuta gelditzen delako…

Jon zinegotziak hitza hartu eta adierazi du proposatutako obrak kontuan hartuko

que pondría en peligro la continuidad de la escuela. Añade que su grupo ha intentado arreglar la situación presentando una enmienda, ya que la incorporación del crédito no puede utilizarse por ser demasiado tarde.

El concejal Mikel toma la palabra y señala que se han aprobado las 7 enmiendas presentadas por su partido, y que él votará a favor.

La alcaldesa toma la palabra para realizar una reflexión sobre el hecho de que las enmiendas de EH Bildu no hayan sido aprobadas: señalan que después del trabajo realizado en años anteriores para su análisis e incorporación, dijeron en prensa que el grupo de gobierno no tiene ni programa ni eje de actuación, y que las cosas salían gracias a EHBildu, demostrándose que eso no es así. Añade, además, que muchos proyectos no se han tenido en cuenta porque pueden ejecutarse con la incorporación de créditos, y porque han preferido incluir proyectos nuevos; y que tienen compromiso con la educación, pero que el contrato de la escuela infantil no prevé prórrogas, y que su grupo sabrá el porqué. Al respecto de eso último señala que, además, ya han puesto en marcha la solución, de la que darán cuenta en el próximo pleno municipal.

A continuación explica las razones por las que no se han aprobados las enmiendas por el grupo EHBildu: no existir solicitudes para el nuevo comedor; consideran más apropiado gestionar la recogida de residuos desde obras y servicios y las campañas de concienciación desde medioambiente; porque los asuntos relativos a la igualdad se analizarán más adelante, con la ayuda de la persona que se prevé contratar; la ayuda de la parroquia está garantizada; la ayuda de Astiko queda garantizada con la nueva persona que se prevé contratar…

El concejal Jon toma la palabra y señala que tendrán en cuenta las obras propuestas, pero que existen otras prioridades, como por ejemplo, en el tema de las inundaciones dar prioridad al río Urumea y no a la canalización del Galtzaur. Añade que ha habido problemas para la

dituztela, baina beste lehentasun batzuk daudela, esaterako, uholdeen gaiaren inguruan Urumea ibaiak duela lehentasuna eta ez Galtzaurren bideraketa. Gaineratu du Perurenako obrak gauzatzeko arazoak egon direla, eta titularitatea eta emakida edo kontzezioa aztertzeke dagoela; eta gaineratu du kirol teknikariak beharrak aztertzen ari dela.

Andoni zinegotziak adierazi die hezkuntzan duten konpromisoa ez dela aurrekontuan islatzen, murrizketa gehien jasan duen arloa izan baita. Gainera adierazi du: lehenik, udal osoko bilkurak onartu zuela haur eskola berria 2018-19 ikasturterako martxan jartzea, baina ez dela ezer egin, ez dela konpromisoa bete eta dagoeneko ez duela denborarik ematen hori betetzeko; bigarrenik, DBHko azken batzordea lotsagarria izan zela, ez baitzen ezer azaldu; hirugarrenik, haur eskolaren kontratu hiru urteko egin bazen, legeak hori adierazten duelako dela, eta gainera erosteko eskubidearekin sinatu bazen, erosteko asmoa zegoelako izan zela, eta hori aurreko legealditik datorrela eta horren berri bazutela; eta azkenik, txikien jangelan arazoak daudela, eta hori jakiteko galdetu besterik ez dutela.

Inbertsioei dagokionez, adierazi du batetik, uholdetarako Urumean egin beharreko lanak Ur Agentziak egin behar dituela, eta Galtzaur errekarako proposatutakoak, berriz, Udalak, eta egin den arren arazoa orain dela askotik datorrela, aurreko legealdia arte ez zela jakin zein zen konponbidea. Eta bestetik, egia dela aurrekontuan inbertsio berriak sartu dituztela, baina jasotako zenbatekoa ez dela aski horiek bideratzeko, eta adibide gisa jarri du igogailuaren obra.

Bukatzeko, adierazi du iaz aurkeztu zituzten emendakinak onartu arren, gero horiek ez direla gauzatu, eta adierazi du aurrekontuaren %50aren kreditu erreserba bakarrik egin dela, eta gauzatu %33a; hau da, aurrekontua ez dela garatu eta hori likidazioan argi geldituko dela.

ejecución de las obras de Perurena, y que tanto la titularidad como la concesión están pendientes de revisión; y para finalizar señala que el técnico de deportes está analizando las necesidades.

El concejal Andoni les indica que el compromiso que han adquirido con educación no se ve reflejado en el presupuesto, y que se trata de la partida que más recortes ha sufrido. Además, señala lo siguiente: primero, que el pleno municipal aprobó que la nueva escuela infantil se pondría en marcha en el curso 2018-19, pero que no se ha hecho nada, por lo que el compromiso no se ha cumplido y ya no queda tiempo para hacerlo; segundo, que la última comisión de la ESO fue vergonzosa, ya que no se explicó nada, tercero, que el contrato de la escuela infantil se hizo para tres años porque la legislación así lo establece, y que además, si se firmó con derecho a compra fue porque tenían idea de comprarlo, algo que viene de la legislatura anterior y sobre lo que ya tenían conocimiento; y, por último, que en el comedor de los pequeños existen problemas, y que para saberlo no tienen más que preguntar.

Por lo que respecta a las inversiones señala que, por una parte, las obras que deben realizarse en el Urumea para la prevención de las inundaciones deben ser ejecutadas por Ura Agentzia, mientras que las propuestas para la regata Galtzaur corresponden al Ayuntamiento, y que, aunque el problema viene de hace tiempo, se desconocía la solución hasta la pasada legislatura; y por otra parte que es cierto que han introducido nuevas inversiones en el presupuesto, pero que el importe no es suficiente para ejecutarlas, poniendo como ejemplo la obra del ascensor.

Para finalizar señala que a pesar de haberse aprobado las enmiendas presentadas el año pasado, posteriormente no se han ejecutado, y en ese sentido señala que sólo se ha realizado una reserva de crédito del 50% del presupuesto, ejecutándose el 33%; o sea, que el presupuesto no se ha desarrollado, algo que quedará claro en la liquidación.

Alkateak erantzun dio: lehenik, ikastola nola handitu oraindik erabakitzeke dagoela, baita obra nork ordainduko duen, eta horrek aurrekontua baldintzatzen duela; bigarrenik, haur eskolak egun ez duela leku arazorik, eta beraz, denbora dagoela nola eta non egin erabakitzeko; hirugarrenik, uholdeen ikerketa porrot egin zuela, eta horren obra itxaro-zerrendan gelditu beharko duela; eta laugarrenik, udalak langile gutxi dituela eginbeharreko guztiak gauzatzeko, baina ezin dituela gehiago kontratatu, legez ezin delako RPTa handitu.

La alcaldesa le responde: en primer lugar que todavía no han decidido cómo ampliar la ikastola ni quién pagará la obra, lo cual condiciona el presupuesto; en segundo lugar, que en la actualidad la escuela infantil no tiene problema de espacio, por lo que todavía hay tiempo para decidir cómo y dónde; en tercer lugar, que la investigación sobre las inundaciones fracasó, por lo que la obra deberá continuar en la lista de espera; y por último, en cuarto lugar, que el ayuntamiento no dispone del personal suficiente para hacer frente a sus obligaciones, pero que legalmente no puede contratar más trabajadores porque la ley no permite ampliar la RPT.

Ikastolako obraren ordainketaren inguruko adierazpenak, alkatea eta Andoni zinegotziaren arteko eztabaida sortu du. Bigarrenarentzako obra Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordaindu behar baitu, eskumena berea delako, eta eskumena udalaren esku utziz gero, diru ekarpenarekin batera etorri behar du eta egin ezean arazo larri bat sortu daiteke. Alkatearentzat, berriz, Udalatik kanpo gaia juridikoki aztertuta dago, eta ez dago arazorik udalak eraikina egin eta gero hezkuntzaren esku uzteko. Andoni zinegotziak hori zalantzan jarri du, eta udal-idazkariak gaiaren inguruko azterketa juridikoa egitea eskatu du.

La explicación sobre el pago de la obra de la ikastola ha originado una discusión entre la alcaldesa y el concejal Andoni. Porque en opinión del segundo, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco debe ser quien pague la obra, por ser competencia suya, y en el caso de transferirsela, deberá venir acompañada de una aportación económica, y de no ser así provocaría un grave problema. En cambio, la alcaldesa opina que fuera del Ayuntamiento el tema está jurídicamente analizado, y que no ve ningún problema en que el ayuntamiento construya el edificio y posteriormente lo ponga a disposición de educación. El concejal Andoni pone en duda lo anterior, y solicita que la secretaria municipal realice un análisis jurídico del tema.

Jarraian, irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 7 botoekin (EAJ-PNVko eta Euskadiko Sozialisteko kideak) eta kontrako 6 bozkarekin (EHBilduko kideak).

A continuación se procede a la votación del dictamen, que sea **aprueba** con 7 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 6 votos en contra (de los miembros de EHBildu).

**3.- Britac Proyectos SL enpresak 09 HIEko G.1/1 partzelan egingo duen obra (kultur etxe berria eraikitzea) interes berezikoa edo udal onurakoa izendatzea.**

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**3.- Declarar de especial interes o utilidad municipal la obra que la empresa Britac Proyectos SL va a ejecutar en la parcela G.1/1 AIU9 (construcción de la nueva casa de cultura)**

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

***Lehena.-*** *Britac Proyectos, S.L. enpresak 09 HIEko G.1/1 partzelan egin behar duen obra interes bereziko edo udal onurakoa izendatzea dauden zirkunstantzia kulturalak horrela frogatzen dutelako.*

***Primero.-*** *Declarar la obra a realizar por la empresa Britac Proyectos, S.L. en la parcela G.1/1 del AIU 09 de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias culturales que lo justifican.*

***Bigarrena.-*** *2016ko abenduaren 7ko GAOn argitaratutako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak 19. artikuluan xedatzen duenaren arabera, %95eko hobaria ezartzea G.1/1 partzelaren eraikuntzak, instalazio eta obraren zergan.*

***Segundo.-*** *Aplicar una bonificación del 95% en la licencia de construcción, instalación y obra de la parcela G.1/1, tal y como se señala en el artículo 19 de la Ordenanza Fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras publicada en el BOG de 7 de diciembre de 2016.*

***Hirugarrena.-*** *Erabaki honen berri Britac Proyectos, S.L. enpresa eta Udaleko zerga-bilketa departamentuari ematea.*

***Tercero.-*** *Notificar dicha resolución a Britac Proyectos, S.L. y al departamento de recaudación del Ayuntamiento.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du alde bozkatuko dutela. Gaineratu du bere garaian gauzatze-proiektua eskatu zela, eta kota 0ko baimena eduki eta obra hasi den arren, oraindik ez dutela jaso.

El concejal Andoni toma la palabra y señala que votarán a favor. Añade que en su día se solicitó el proyecto de ejecución, y que, pese a disponer de permiso de cota 0 y haberse iniciado ya las obras, todavía no lo han recibido.

Alkateak azaldu dio kultura teknikariak azken momentuko proposamen batzuk egin dituela, eta horiek proiektuan txertatzeke daudela, baina edozein unetan aurkeztuko dutela, eta orduan aurkeztuko dela.

La alcaldesa le explica que la técnica de cultura ha realizado algunas propuestas de última hora que no se han incorporado al proyecto, pero que en cualquier momento lo harán y será entonces cuando lo presentarán.

Andoni zinegotziak adierazi dionean behintzat hori aurrez azaltzerik zutela, alkateak erantzun dio kultura batzordean galdetu besterik ez zutela. Orduan, Ainara zinegotziak adierazi dio horrela egin zutela, baina ez zutela erantzunik jaso.

El concejal Andoni le indica que en cualquier caso podían haberlo dicho antes, a lo que la alcaldesa le responde que no tenían más que preguntar en la comisión de cultura. Momento en que la concejala Ainara le indica que así lo hicieron, pero sin recibir ninguna respuesta.

Jarraian **irizpenari** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que se **aprueba por unanimidad**.

## 4.- Informazio, galdera eta eskariak

## 4.- Información, ruegos y preguntas.

**a.- <u>27. Industrialdetik Astigarragara egingo duten errepide berria.</u>**

Andoni zinegotziak adierazi du kezkatuta daudela errepide berriaren inguruko

**a.-<u>Nueva carretera que se va a construir desde el polígono 27 hasta Astigarraga.</u>**

El concejal Andoni indica que están preocupados por no disponer de

informaziorik ez dutelako. Eta gaineratu du udal gobernu taldeari horren inguruko informazioa eskatu diotenean, ezer ez dakitela erantzun zaiela.

Alkateak erantzun dio errepidea aspalditik dagoen arazo bat konpontzearren egingo dela, hots, industrialdeko irteerak dituen arazoak. Gaineratu du beste ibilbide bat eskatu zutela, baina adierazi zitzaiela teknikoki ez zela bideragarria. Bukatzeko, azaldu du herrian eragina izango duen arren, proiektua ez dela beraiekin landu, eta ez dietela informaziorik pasa.

Andoni zinegotziak adierazi du errepidearen plano bat badagoela, eta proiektua idazteko baldintza teknikoak argitaratuta daudela. Eta alkateari aurpegiratu dio prentsan azaldu izana, bere kezka azaldu gabe, eta arduragabetzat jo du proiektuaren nondik norakoak ezagutu gabe, prentsan azaltzea.

información sobre la nueva carretera. Y añade que cuando han solicitado al grupo de gobierno municipal, les han respondido que no saben nada.

La alcaldesa le responde que la carretera se construirá para solucionar un problema de hace tiempo relacionado con la salida del polígono industrial. Añade que en su día solicitaron otro trayecto, pero que se les explicó que técnicamente no era viable. Para finalizar señala que, aunque se trata de un proyecto que afecta a la localidad, no han contado con ellos para su elaboración, y tampoco les han pasado información al respecto.

El concejal Andoni señala que existe un plano de la carretera, y que las condiciones técnicas para la redacción del proyecto ya han sido publicadas. Y reprocha a la alcaldesa haber salido en la prensa sin mostrar ninguna preocupación, considerando una falta de responsabilidad por su parte el hecho de haber aparecido en la prensa sin conocer los pormenores del proyecto.

**b.- <u>Hondakinak</u>**

Andoni zinegotziak adierazi du prentsan esan dela hondakinen bilketa-sistema berriari boikota egiten zaiola.

Alkateak erantzun dio jarrera negatibo bat dagoela, eta batzuek ez dutela sistema berria erabili nahi.

Zinegotziak adierazi dio bere taldeak aurreko legealdian portaera txarrekin bukatzeko herritarren laguntza eskatu izan balu, beraien kontra egingo zutela. Alkateak erantzun dio beraiek ez dutela eskatu jendeak polizi lanak egitea.

**b.- <u>Residuos</u>**

El concejal Andoni indica que en la prensa se ha dicho que el nuevo sistema de recogida de residuos está siendo boicoteado.

La alcaldesa le responde que se percibe una actitud negativa, y que algunos no quieren utilizar el nuevo sistema.

El concejal le explica que si en la anterior legislatura su grupo, para finalizar con los malos comportamientos, hubiera solicitado la ayuda de la ciudadanía, se habrían opuesto a ellos. La alcaldesa le responde que ellos no han pedido a la gente que haga de policía.

**c.- <u>Sagardo plazako hiritartze-lanak</u>**

Andoni zinegotziak obrak noiz bukatuko diren galdetu du. Jon zinegotziak erantzun dio urtarrilaren 15erako bukatu behar zela, baina

**c.- <u>Obras de urbanización de Sagardo plaza</u>**

El concejal Andoni pregunta cuándo finalizarán las obras. El concejal Jon le

eguraldia dela-eta ez duela uste ordurako bukatutako egongo direnik, baina haur-jolasak eta estalkia jarrita egongo direla.

Andoni zinegotziak adierazi du ez dutela egoki ikusten bertako bizilagunek bakarrik eduki izana aukera plazako diseinua hautatzeko, denentzako irekia izan behar baitzuen, emaitza berdina izan arren.

Jon zinegotziak argitu dio bertako bizilagunek eskatu zutela horrela egitea, beraiei bakarrik eragiten dien zerbait delako.

Nerea zinegotziak azaldu du parte-hartzea hasieratik egin dela bizilagun eta merkataritzarekin, baina bertaratu zen guztia eduki zuela aukera diseinua hautatzeko, eta galdeketaren berri prentsan eman zela.

responde que debían haber finalizado para el 15 de enero, pero que debido al mal tiempo no cree que estén finalizadas para entonces, pero que en cualquier caso se instalarán los juegos infantiles y la cubierta.

El concejal Andoni señala que no les parece adecuado que únicamente el vecindario de la zona hayan tenido la oportunidad de elegir el diseño de la plaza, ya que debía ser abierta para todos, aunque el resultado hubiese sido el mismo.

El concejal Jon le aclara que fue el vecindario de la zona quien solicitó que se hiciera así, pues se trata de algo que únicamente les afecta a ellos.

La concejal Nerea explica que inicialmente se contó con la participación del vecindario y el comercio, pero que todas las personas asistentes tuvieron la oportunidad de elegir el diseño, informándose de la consulta a través de la prensa.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2018ko urtarrilaren 9an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria